

Askotariko film eskaintzak sutan jarriko du Belodromoa

SERGIO BASURKO

Zinemaldiaren epizentrotik urrunen egonik bere baitan ikusle gehien hartzen duen zinema-aretoa, Belodromoan, film mordoska aurkeztuko da aurten ere: "Arde Madrid" Paco Leónek eta Anna R. Costak sortutako telesaila, osorik; *Dilili à Paris* (*Dilili à Parisen*), zeinaren eskutik Michel Ocelot Donostiara bueltan izango baitugu, Kiriku pertsonaia sortu zuenetik 20 urteren ondoren; bi saioko emanaldi bat (*Campeones*, Javier Fesser errealizadorearena, eta *Ni distintos ni diferentes: campeones*, aurreko filmeko protagonisten benetako istorioak kontatzen dituen dokumentala), eta *Smallfoot* animaziozko lana, Karey Kirkpatrickek zuzendua, non yetiaren mitoa guztiz aldatuta aurkezten zaigun.

"Arde Madrid" telesaila 1961eko benetako gertaera batean oinarrituta dago, hain zuzen, Ava Gardner Madrilen Juan Domingo Perónen goiko solairuko bizilaguna izan zenekoan. Hauek dira protagonistak: Paco León (zuzendaria ere badelarik), Inma Cuesta, Debi Mazar, Anna Castillo eta Julián Villagrán. Istorioa, Estatu Batuetako aktorearen etxeko langileen ikuspuntutik kontatua, komediaren eta thrillerren artean mugitzen da.

Michel Ocelotek *Dilili à Paris* lana aurkeztuko du Donostian; istorio horretan, Kaledonia Berritik etorritako neskato batek Parisen, belle époque garaian, gertatzen ari diren neska gazteen bahiketak ikertuko ditu. Ocelotek *Kirikou et la sorcière* (*Kiriku eta sorgina*, 1998) arrakastatsua egin zuenetik hogeitaz igaro dira; lan horrekin film luze onenaren saria irabazi zuen Annecyko festibalean, eta arrakasta hark balio izan zuen Frantziako eta Europako animaziozko filmen industria ezagutzera emateko. Gero, *Kirikou et les bêtes sauvages* (*Kiriku eta basapiztiak*, 2005) eta *Kirikou et les hommes et les femmes* (2012) heldu ziren.

Bestalde, emanaldi bikoitz bat ikusi ahal izango dute Belodromoan sartzen diren 2.700 pertsonak. Izan ere, Javier Fesserrek zuzendutako *Campeones* film arrakastatsua emango dute lehenengo, eta haren inguruko



Dilili à Paris, animaziozko Paris Michel Oceloten begiz ikusia.



Paco León eta Inma Cuesta "Arde Madrid" telesailako fotograma batean.

Fresserren txapeldunak, Parisko belle époque, yetien kontuak eta Madril sutan ikusteko aukera paregabea

Alvaro Longoriaren *Ni distintos ni diferentes: campeones* dokumentala segidan. Filmaren protagonistak dira, halaber, dokumentalaren protagonistak.

Halaber, *Smallfoot* animaziozko filma izango dugu, adin guztietako publikoari zuzendutako pelikula, jatorrizko musika eta izen handiko aktoreak dituena. *Smallfoot* lanean, Yetiaren mitoari buelta eman dio Karey Kirkpatrick zuzendariak, yeti gazte batek gizaki bat aurkitzetik abiatzen baita istorioa. Gertaera horrek yetien komunitatea aztoratuko du, ez baitzu-

ten gizakien existentziaren berri. *Smallfoot* Bonne Radfordek, Ficarrak eta Requak ekoitzia izan da eta filmaren jatorrizko bertsioan, hauek jarri dituzte ahotsak: besteak beste, Channing Tatumek, James Cordenek, LeBron Jamesek, Gina Rodriguezek eta Danny DeVitok.

Azkenik, ohi bezala, goizero haurrentzako zinema-saio bat ere emango da Belodromoan, ikastetxeekin hitzartutako programaren bitartez. Aurten, Paul Kingek zuzendutako *Paddington 2* proiektatuko da.

Musika pasealdia zinemaren barrena

S.B.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, SGAE fundazioak eta Donostia Zinemaldiak zinema-musikako kontzertu bat eskainiko dute aurten ere. Zinemaldiko lehenengo larunbatean, irailaren 22an, eguerdian irekiko zaizkie ateak melomano, zinemazale eta entzuleei, soinu-banden interpretazio sinfonikoa eta soinu-banda horiei dagozkien filmetako eszenekin egindako muntaketa bateratzen dituen ikuskizunaz gozatzeko. Fernando Velázquez orkestra-zuzendari eta konpositorea izango da orkestraren zuzendaria zinema eta soinu-banden topaketa jendetsu horretan.

Aurtengo Kontzertua & proiektzioa ekitaldiak hamar bat filmetarako konposatutako musikaren egokitzapenak bilduko ditu "Pasealdia zinemaren barrena" izenburupean. Velázquezek berak konposatu ditu eskainiko diren musika-obren erdia: adibidez, *Zipi y Zape* eta *la isla del capitán*, *Gernika*, *El secreto de Marrowbone*, *Contratiempo* —Zahara abeslariarekin batera konposatua— eta *Un monstruo viene a verme* filmetako soinu-bandak. Errepertorioa osatzeko, beste bost film hauetarako konposatutako musikaren egokitzapenak aurkeztuko dira: *Locura de amor*, *Tadeo Jones 2: El secreto del rey Midas*, *El elegido*, *Todos los hombres sois iguales* eta *Golazen*. Juan Quintero, Zacarías M. de la Riva, Arnau Bataller, Bernardo Bonezzi eta Álvaro Carmona izan ziren soinu-banda horien konpositoreak, hurrenez hurren.

Ordu eta erdiko gutxi gorabeherako iraupena izango duen kontzertu honetan Orkestrak hainbat ahots izango ditu ondoan: Golazen euskal telesailko hainbat abeslari, Zahara eta Kup Taldea abesbatza.

Gonbidapenak gaur arte jaso daitezke Zinemaldiaren Kursoaleko eta Okendo plazako informazio-guneetan eta Boulevard-eko Donostia Turismoa bulegoan, 9:00etatik 20:00etara. Azken sarrerak Belodromoko leihaletan eskuratu ahal izango dira goizeko 10etatik aurrera kontzertuaren egunean.



eclair

POST-PRODUCCIÓN | DISTRIBUCIÓN A CINES
DOBLAJE Y SUBTITULADO | DISTRIBUCIÓN DIGITAL
RESTAURACIÓN Y PRESERVACIÓN

© 2018 YMAGIS SPAIN SLU. TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS.

Barcelona | Madrid

SOLUCIONES
EXPERTAS EN LA
GESTIÓN DE CONTENIDOS

www.eclair.digital/es    